

noaua



ANDATZATIK DATORREN URA HERRIKO TXOKO GEHIAGOTARA HELDUKO DA


Orbeldiko presatik datorren urak Usurbilgo etxebizitzaren %62a hornituko du astelehenetik aurrera / 05

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Txirikordaren inaugurazioak ikusmin handia piztu zuen / 08



NOAUA

Peru Iraeta: "Konpromisoa eskatzen du eskubaloiak" / 18



NOAUA

UdaberriFest zikloa martxan da, Zubietako eskolak antolatuta / 22



SAGARDO EGUNA, GEHIGARRI BEREZIA

'Plazan Bazan', gaztetxoentzako denborapasen txokoa / 12-13



Plugia (Italia)

IRTEERA 2024ko urria

Noaak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaaa.eu • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

MABIOK FISIOTERAPIA

Ekografietan, terapia inbasiboetan eta
eskuzko terapietan adituak



Alperro Buru kalea 1, BsB (20170)
T. 608 671 925 / 943 372 659
Sare sozialak: mabiok_fisioterapia
Webgunea: mabiokfisioterapia.com



GIPUZKOA BERTSOTAN 24

2. FASEA

USURBIL

Maiatzak 26, igandea, 17:00 
Sutegi Aretoa 

Antolatzailea:



Laguntzailea:



www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Usurbilgo pilota txapelketako lehen irabazleak

Pagazpeko gazteek Usurbilgo Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten ostiral arratsaldean frontoian. Irudian dituzue sarituak izan ziren pilotariak.

Benjamin mailako finala, Auritz Iturralde eta Mikel Rotetaren artekoa, 12-16 emaitzarekin amaitu zen.

Alebinetan Telmo Huizi Alex Alkortari nagusitu zitzaion, 16-15 izan zen azken emaitza.

Infantiletan bi partida jokatu ziren: Martin Blazquez eta Aratz Usabiagaren artekoa (18-16); eta Ekain Alejo eta Markel Alejoren artekoa (8-18),



Usurbilgo gazteen mailako pilota txapelketako sariak aurreko ostiralean banatu zituzten.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Maiatzaren 16tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Maiatzaren 23an garbigune hau Txokoaldera eramango dute.

Helduentzako tertulia filosofikoa, ostiral honetan Potxoenean

Filosofatzeko gune aserako tartea eskainiko dute beste behin ere Oinherri taldeak eta Jakin-min elkarteak. Ostiral honetan, maiatzaren 17an, 18:30-20:00 artean Potxoenean. 15 laguntzako lekua egongo da. Izena aurrez eman ahalko da usurbilkultura.eus plataforman.

'Gipuzkoa Bertsotan' txapelketako saioa Usurbilen

Udazkenean ospatuko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen faseko saioetako bat maiatzaren 26an egingo da Sutegiko auditorioan, arratsaldeko 17:00etan hasita. Sarrerak, bertosarrerak.eus atarian eskuratu ahalko dituzue.

Larunbat honetan, Elkargunearen bilera berri bat

Herri elkargune hau eraikitzen segitzeko Elhuyarrek dinamizatuta, otsailaz geroztik abian den parte hartze prozesuko hurrengo bilera, larunbat honetarako dago aurreikusia, maiatzaren 18rako, 10:00-13:30 artean Udarregi ikastolako jangelan.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Ezin aise ase

Astelehena,
jai ondoko alperra,
lanik ez egiteko,
ez goaz lanera,
ez goaz lanera (lau)

Asteartea,
euria goitik behera,
bustiko ez bagara,
ez goaz lanera,
ez goaz lanera (lau)

Eta horrela aste guztiaren errepasoa egiten du abesti herrikoiak: asteazkenean osaba ezkontzen delako, ostegunean amonaren eguna delako, ostiralean hagineta mina, larunbatean egun erdiko lana eta igandean lantegia itxita.

Edozein aitzakiak balio du lanera ez joateko. Eta jendeak zergatik ez du, bada, lanera joan nahi? Maiatzaren 1ean, Langileen Nazioarteko Egunean entzun nion Angel Toña Enpresa eta Ekonomia Zientzietan doktoreari eta Deustuko Unibertsitatean Ekonomia irakasle denari arrazoia. Gaur egungo lan merkatuari buruz hitz egiten ari ziren Euskadi Irratiako Goiz Kronika saioan: lan mundua asko aldatzen ari dela eta iraultza teknologikoak eta adimen artifizialak aldaketa handiak ekarriko dituztela zioten. Eta robotikak eta automatizazioak lanpostu batzuk desagerrarazi egingo dituztela eta lanpostu berriak ere sortuko direla.

Datuak datu, Toñak zioen arazo handiena ez direla aldaketa eta ondorio horiek denak,



“Lan merkatuaren arazo handiena da jendea ez dagoela pozik bere lanarekin”.

baizik eta, jendea ez dagoela pozik bere lanarekin. Pertsona gehienentzat lanera joateak nahigabea sortzen omen du, atsekabea, eta ez omen dira kontent joaten. Ez gaudela pozik zioen.

Zergatik? Ez garelako ase sentitzen. Orain dela 100 urte ekonomialari batek zera esan omen zuen: gaur egun 15 ordu lana egitea nahikoa izango zela. Baina ez da horrelakorik gertatu, orduan baino ordu gehiago egiten dugu lan. Zergatik? Toñaren ustez ez garelako ase, ez gaudelako pozik. Gure de-

**“PERTSONA
GEHIENENTZAT
LANERA JOATEAK
NAHIGABEA SORTZEN
OMEN DU, EZ
GARELAKO ASE
SENTITZEN”**

sioak infinituak direla zioen, beti pentsatzen dugula guk diru gutxi irabazten dugula edo besteek gehiegi irabazten dutela; guk lan asko egiten dugula eta besteek gutxi. Betikoa; urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau. Atsekabe horretan sartuta omen gaude.

Gainera, gure aisiarako ere dirua behar dugula zioen. Gure oporrez edo aisialdiaz gozatzeko gutxitan edo inoiz ez omen dugu pentsatzen diru gabe egin dezakegunik. Beraz, dirua behar badugu, lan gehiago egin behar dugu eta soldata hobe behar dugu. Ondorioz, sekula ez gaude pozik.


Toñaren hitzek beste errealitate bat jarri didate begien aurrean: ekonomia globala, teknologia berrien bilakaera, lanpostu eskaintza... gauza asko ez daude gure esku, baina lanarekiko jarrera bai. Eta zenbat kostatzen zaigun gure esku dauden gauzetatik hasia.

Familientzako orientazio ibilbidea

HH eta LH ko ikasleei eta haien familiei zuzenduriko orientazio ibilbidea antolatu du Udarregi ikastolako Kanpo Espazio Taldeak GOT-ren laguntzarekin, larunbat honetarako, maiatzaren 18rako. Irteera Txokoaldeko Irisasi baserriaren albotik egingo da, ohartarazi dutenez, bost minuturo gutxi gorabehera, 16:30-18:00 artean. Ekimenean parte hartu asmo dutenek lokatzetan ibiltzeko moduko oinetakoak, ura eta iparrratza izanez gero hori ere bai, eramatea eskatu dute. Izena maiatzaren 16a baino lehen eman beharko da udarregi.eus-en eskuratu ahalko den galdetegia beteta.

Aniztasun Kontseiluaren gonbita

Tarteka egin ohi duen moduan, jatorri guztietako usurbildarren bilgune den Aniztasun Kontseilua ostegun honetan, maiatzaren 16an bilduko da berriz arratsaldeko 17:30etan, oraingo honetan, ordea, espazio berri batean; zabalik den Kalezarko Pelaiouenean. Hitzordura joateko deia egin dute Aniztasun Kontseilutik. “Taldekide finkoak badituen arren, izaera irekia du Aniztasun Kontseiluak, eta, horregatik, jatorri aniztasunaren inguruan interesa izan dezaketen herriar guztiak gonbidatu dituzte saioan parte hartzera”.





Orbeldiko presa. Andatzatik bertara datorren urak Usurbilgo etxebizitzaren %62 hornituko du astelehenetik aurrera.

Herriko ura eskura ia Kaxko osoan

Maiatzaren 20tik aurrera, %40tik %62ra igaroko da herriko ur hornidurak izango duen hedadura Usurbilen. Ia Kaxko osoan edan ahaliko da Andatzatik datorren ura. Ur sistemaren instalakuntzak ezagutzeko bisita gidatuak iragarri ditu Usurbilgo Udalak.

Andatzatik behera datorren ura herriko txoko gehiagotara helduko da maiatzaren 20tik aurrera. Izan ere, "herriko ura Kale Nagusitik harago iritsiko" dela iragarri du Usurbilgo Udalak. "Herriko etxebizitzaren %62 herriko urarekin hornituko da (lehengo %40aren aurrean)", ia Kaxko osoa, Kalezar izan ezik. Orain arte "Erroizpen dauden hiru iturburu bidez Usurbilgo etxeen %40 hornitzen zen (Zubieta, Aginaga, Santuenea, Txokoalde, Urdaiaga eta, kaxkoan, Kale Nagusitik beherako zatia)". Aurrerantzean, herriko uraren hornidura ia Kaxko osora hedatzeko otsailan ekin zuten Udalak. 894.125 euroko inbertsioa izan da. "Nagusiki, hiru lan egin dira. Batetik, San Esteban I deposituan (parke azpian dagoena) filtro berriak jarri dira,

Erroizpeko iturburuetakoa ura ez ezik presako ura ere baliatu ahal izateko. Era berean, telekontrol sistema berria jarri da, Europako Batasuneko Next Generation funtsetatik bultzatutako PERTE dirulaguntza baliatuta. Horrez gain, Erroizpeko iturburuak eta San Esteban I depositua lotzen dituen hodia berritu da: jatorrizko proiektua filtroak aldatzeko idatzi zen, baina obrak egingo zirela aprobetxatuz, hodia ere aldatzea erabaki zen, berritze-ko zuen premia ikusita", azaldu dute Udaletik.

Horregatik, "filtrazio sistema egin den inbertsio honi esker, Erroizpeko hiru iturburuetakoa ura ez ezik presako ura ere baliatzeko aukera izango da: segundoko 11 litro ordez, 86 litro erabili ahal izango dira, eta horrek ahalbidetuko du,

beraz, etxe gehiagotara iritsi ahal izatea".

Hiru fase

Hiru fasetan bideratuko du Udalak herriko ur horniduraren hedapen prozesu hau. Urte hasieratik "ura obren aurreko mailaraino eramatea" izan da Udalaren helburua, "hau da, lehen bezala, herriko ura banatzea Zubieta, Aginaga, Santuenea, Txokoalde, Urdaiaga eta, kaxkoan, Kale Nagusitik beherako zatira". Maiatzaren

"ERROIZPEKO HIRU ITURBURUETAKO URA EZ EZIK PRESAKO A ERRE BALIATU AHALIKO DA"

20tik aurrera, bigarren fasea abiaraziko dute; "herriko urak Kale Nagusia gainditu eta kaxkoko etxebizitzara guztietara eramandakoan, Ugartondoraino". Azkena, "dena ondo bidean, herriko ura ia Kalezar osoraino eramatea" da asmoa, hartara herri ura etxebizitzaren %80ra helduko litzateke. "Añarbeko urarekin hornituko liratekeen guneak soilik Kalezarren goiko zatia eta Txikiardi-Urbil ingurua lirateke". Orain arte bezala, aurrerantzean ere ur sistema etengabe aztertzen segiko du Udalak, ur hornidura bermatua egon dadin. Hala, "herriko urarekin hornitzen ez diren etxebizitzetan Añarbeko Txalin eta Larbain deposituetatik jasotzen den ura eramaten jarraituko da". Lehorterik balego, bestalde, "udalak beti izango luke Añarbeko ura banatzeko aukera". Udalaren asmoa argia da. "Udalak beti egin izan du ur propioaren aldeko apustua, eta horretan jarraituko dugu: gure herriaren ondare, ondasun eta altxor preziatua den ura zaintzen eta babesten jarraitu dezagun", nabarmendu du Ainhoa Arrozpide Ingurumen zinegotziak.

Maiatzaren 24an eta 25ean, bisita gidatuak

Aipaturiko berrikuntzok eta herri honen ur sistema ezagutzeko aukera izango dute herrikideek. Udalak hitzordu bana iragarri du maiatzaren 24an (17:00-19:00) eta hilaren 25ean (10:00-12:00). "Bisitak Erroizpen hasi eta San Esteban I deposituan amaituko dira: udaleko ordezkari politiko zein teknikoek emango dituzte azalpenak, eta, guztira, bi ordu inguruko saioak izango dira" zehaztu dute. Bi saioetarako Txokoaldeko Txokoargi auzo elkartearen ondoko aparkalekuan finkatuko da elkarrekin abiatzeko hitzordua. Bi txango hauetarako izena aurrez eman behar da usurbilkultura.eus plataforman.



Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideek maiatzaren 7an Zubietan eginiko agerraldia.

Erraustegira martxa eta Toxicowatch-ekoen agerraldia

Bi deialdi iragarri ditu Erraustegiaren Aurkako Mugimenduk; martxa larunbatean 11:00etan Lasarte-Oriako Okendo plazatik erraustegi atarira. Bestalde, Toxicowatch fundazioko bi ordezkariak bost urteotan erraustegiaz eginiko azterlanaren emaitzak aurkeztuko dituzte.

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduk iragan astean Zubietako erreboten plazan eginiko agerraldian bi deialdi iragarri zituen. Batetik, erraustegira martxa larunbat goizeko 11:00etan Lasarte-Oriako Okendo plazatik, "agintariei exijitzeko geldi dezatela erraustegia, ez dezatela gehiago hondakin erre, ez Zubietan, ez Añorgan, ez Bergaran eta ez inon". Gipuzkoako herri-tarrak deitu zituzten, "Zubietako erraustegiaren aurrean gure protesta azaltzera". Donostia Bizirik, Eguzki eta Ekologistak Martxan eragileek bat egin dute hitzorduarekin. Mobilizazioa abiatu baino lehen, urteotako borroka irudikatu duten kartelen bilduma

ikusgai jarriko dute Okendo plazan bertan.

Bestetik, azken bost urteotan erraustegiaren eragina aztertzen aritu den Toxicowatch fundazioko Abel Arkenbout eta Kirsten Bouman orain arte eginiko lanketaren emaitzak aurkeztera datoz gure artera; hilaren 23an Hernaniko Sardiusterrira eta hilaren 27an

"TOXICOWATCHEK BOST URTEZ SEGIDAN EGIN DIE JARRAIPENA ERRAUSTEGIAREN KUTSATZAILEEI"

18:00etan Usurbilgo Sutegira. "Toxicowatchek bost urtez segidan egin die jarraipena erraustegiaren kutsatzaileei, urtero bilduz laginak inguruko uretan, erreketako sedimentuetan, lurretan, goroldioetan eta zenbait landare hautatuetan eta baita ere inguruan zenbait familiak autokontsumorako dauzkaten

"BILDUTAKO LAGINETAN KUTSADURAREN IGOERA KEZKAGARRIA AURKITU DA"

oilategietako arrautzetan". Haiekin batera, "Zero Waste Europe (Europa Zero Zabor) federazioko ordezkariak ere gure artean izango dira egun horietan. Zero Waste Europe aztertzen ari da zer kutsadura eragiten duten Europa osoko hainbat erraustegik: Madril (Valdemingomez), Paris (Ivry), Belgika (Beringen), Lituania (Kaunas), Txekia (Pilsen), Herbehereak (Harlingen)... eta Zubietako erraustegiak".

"Kutsaduraren igoera kezkarria"

Toxicowatchek Erraustegiaren Aurkako Mugimenduari aurreratu diotenez, "Zubietako erraustegiaren inguruan bildutako laginetan kutsaduraren igoera kezkarria aurkitu da". Batetik, "landareetan igoera nabarmenak ikusten dira dioxinetan, PCBetan eta PFASetan. Adibidez, gorostien hostoetan ikusten da dioxinak eta PCBak bikoiztu egin direla. Goroldioetan ere dioxina eta PCBen igoerak oso handiak dira. Lurpeko uretan metal astunen aztarnak (beruna, zinka, kobrea...) biderkatu egin dira". Arrautzak ere aztertu dituzte, horietan "dioxina eta PCB maila altuak dauzkate eta urteotan horietan igoera oso nabarmenak ikusi dira, jangarriak izateko muga legalak gaindituz".

Gai horietan guztietan, kutsatzaileon arrastoen bila aritu dira; "metal astunak (beruna, kobra, zinka, kromoa, merkurioa...), dioxinak, PCBak eta PFASak. Azken kutsatzaile hauek ("kutsagarri eternoak" ere deitzen dituztenak) gaur egun aktualitatean daude, horien debekua eta kontrola legez arautu nahian ari direlako Europa osoan".

Eginiko azterlanetik ondorio argia plazaratu dute; "Zubietako erraustegiak lau urte daramatza gu kutsatzen. Egia balitz erraustegiak ez duela kutsadurarik eragiten, hemen bildu diren laginetan ez lukete azaldu behar azaldu diren

→ dioxina, PCB, metal astun eta PFASek".

Gardentasun eske

Datuokin salatu zutenez, "kutsaduraren azterketa tekniko sofistikatuok ez lukete herri mugimendu baten ardura izan behar: agente publikoei dagokie herritarren eta naturaren osasuna bermatzea, gardentasun osoz". Horregatik, "Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu daukaten informazioa eta dauzkaten datuak gardentasun osoz erakutsi ditzatela. ToxicoWatcheko adituen etorrera baliatu dezakete informazioak alderatu eta eztabaidatzeko eta espresuki gonbidatzen ditugu harremanetan jartzera".

Erraustegiaren arduradunei adierazi diete, badaudela hondakinak kudeatzeko "errausketa sistema hobe, garbiago eta merkeagoak eta Gipuzkoan bertan martxan dauzkagu hainbat herritan". Alferrika-kotzat jo duten erraustegia gelditu beharra dagoela diote baina bitartean, erraustegiaren arduradunen lehentasuna izan behar duela diote, "bermatzea, bertatik ez dela zabaltzen ez dioxinarik, ez PCBrik, ez PFA-Sik, ez metal astunik eta ez bestelako kutsatzailerik; horretarako, emisio guztien kontrola jarraian egitea premiazkoa da".

Mobilizatzearen garrantzia

Lehentasuna horrek izan behar duela diote, baina egun ez dela ondoriozta daiteke. Izan ere, "gure agintariak tematzen dira justu kontrako norabidean. Bai erraustegiaren kudeatzaileek eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, informazioak ezkututzen dizkigute herritarroi erraustegiak etengabe sortzen dituen arazo larriak (matxurak, funtzionamendu akatsak, Arkaitzerrekaren erretzea, suteak...) eta gero eta urrutiagora zabaltzen dituzte sortutako kutsatzaileak, Nafarroako Arta-



Erraustegiaz hitz egiten, Batzar Nagusietako Jasangarritasun Batzordean.

xoara legez kontra hondakinak eramatean erakutsi duten moduan". Horregatik jotzen dute garrantzitsutzat mobilizatzea.

Biogipuzkoaren azterlanaren emaitzak aurkeztu dira

Gai honen harira, ToxicoWatch fundazioko ordezkarien agerraldia eskatu zuten EHBilduk eta Elkarrekin Gipuzkoak iragan maiatzaren 9an, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Jasangarritasun Batzordean. Aho batez onartu zuten gainerako taldeek proposamen hau. Honen aurretik, GHK-ren lehendakari eta jasangarritasun arloko foru diputatu Jose

Ignacio Asensiok berak eskatutako agerraldiari tartea egin zioten. Izan ere, haiek ere erraustegia hartu zuten ahotan, Biogipuzkoak (lehen Biodonostia) erraustegia martxan jarri aurretik eta ondorengo lehen bi urteetan inguruan izandako eraginari buruzko azterketa epidemiologikoaren emaitzak aurkeztu zituen Foru Aldundiaren eskariz.

Jesus Ibarluzeak zuzenduriko ikerlanak airean, lurzoruan eta elikagaietan (arrautza eta esnea) hartutako laginen datuak biltzen ditu egileen esanetan, baita hainbat herritarrei eginiko analisisienak ere. Bi eremuetan egin dituzte neurketak, erraustegia martxan jarri aurretik eta gerora; erraustegiaren bueltako Usurbil,

"ALDUNDIARI ETA JAURLARITZARI ESKATZEN DIEGU DATUAK GARDENTASUN OSOZ ERAKUSTEA"

"LEGEA BETETZEAK EZ DU ESAN NAHI OSASUNA BERMATZEN DENIK"

Zubieta, Lasarte eta Andoainen. Urrunagoko beste eskualde bat hautatu dute alderaketa egiteko; Urretxu-Zumarraga, Ordizia eta Beasain inguruak.

Jarraipena behar

Bildutako datuetatik Biogipuzkoakoen azterlanak ondorioztatu ahal izan duenez, ez da aldaketa nabarmenik behatu. Erraustegiaren eraginik ez dute nabarmendu hura 2020. urtean piztu aurretik eta martxan jarri osteko lehen bi urteetan. Halere, egileak zioenez "jarraipena denbora gehiagoan egitea aholkatzen dugu eraginok baieztatzeko", baita heriotza-tasan edota ospitaleratzeetako datuak aztertzeko ere. Ibarluzeak adierazi zuenez, "orokorrean araudia betetzen da baina hori ez da osasunaren bermea".

Batzarkideen taldeek jasotako argibideak eskertu zituzten. Elkarrekin Gipuzkoako bozeramaile Miren Echevestek gogorarazi zuenez, "zientziarekin eskuz esku joan behar dugu denok aurrera. Hori da bidea". Iñigo Manriqueren (PP) esanetan, "erraustegian gauzak ondo egiten aritzearen adierazlea da". Ildo beretik mintzatu zen Susana Garcia Chueca (PSE). "Ez dago zailtzarako tarterik, ez duela suposatzen inolako arazorik". Gaineratu zuenez, gaiotan "baieztapen guztiek ez dute balore bera". Xabier Otxoaren (EAJ) esanetan, "datuok baliogabetu edo gezurtatu egiten dituzte orain arte zabalduetako kontaketa faltsu guztiak".

Jon Altolagirrek (EHBildu) adierazi zuenez, "une bateko argazki bat erakusten digu. Honek epe luzerako sekuentzia bat eskatzen digu ordea". Gaineratu zuenez, "legea betetzeak ez du esan nahi osasuna" bermatzen denik. Asensioaren esanetan, "ikerketa hauek egiten jarraituko dugu, gardentasunez eta arduratsu jokatu dugu".



Txirikordako bizilagunen eta egitasmoaren sustatzaile izan den Usurbilgo Udalaren ordezkariak.

Ongi etorri beroa eman diote Txirikordari

Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioari harrera jendetsua egin zioten usurbildarrek maiatzaren 10ean eginiko inaugurazio ekitaldian. Herriari egitasmoa aurkeztu eta eraikina bera nahiz bizilagunak ezagutzeko atea ireki zuten.

Espazio argitsuak, irekiak, zabalak, kokagune ezin eder-
ragoak... Hauek eta beste hainbat ezaugarri nabarmendu zituzten iragan ostiralean, Txirikordan bisitan izan zirenek. Belaunaldiarteko etxebizitza komunitario barrualdean izan ziren herri-inaugurazioan parte hartu zutenek. Jendetsua izan zen ekitaldia eta talde txiki bat baino gehiago osatu behar izan zituzten eraikin barrualdea ezagutzeko udal ordezkarien eta bizilagunen gidaritzapean antolaturiko bisita gidatueterako. Barrualdeko espazio komunitarioak eta pisu hutsetako bat ezagutu zuten bisitariak. Ikusmina sortu zuten bisita gidatuak.

Bizilagunak

Aurretik, loreak ureztatzen edota otordurako mahaia

atontzen agertu ziren pozarren, solairu ezberdinen terraza komunitarioan. Adin tarte, testuinguru sozial nahiz jatorri ezberdinetako herrikideak denak. "Txirikorda etxebizitza komunitarioa da. Dakizuen ez adin tarte ezberdinetako pertsonak elkar biziko gara bertan. Hori balioan jarri nahi den alderdia da. Belaunaldiartekotasuna esperimendu eta sustatuko dugun eremua izango da Txirikorda. Komunitatea

**BIZILAGUNAK:
"IREKIAK IZAN
NAHI DUGU.
HARREMAN ESTUA
IZAN NAHI DUGU
ZUEKIN"**

sortuko dugu. Gutako bakoitzak etxebizitza pribatua izango badu ere, espazio partekatua eta are gehiago izango ditugu. Bizitzaren alderdiak konpartituko ditugu eta erabaki guztiak denon artean hartuko ditugu. Giza baloreak izango ditugu helburu eta errespetuz eta arduraz jokatuko dugula hitz eman dugu", iragarri zuten Txirikordako bizilagunek balkoietako batek.

**BIZILAGUNAK:
"ETXEBIZITZA
IZATEA ESKUBIDE
BAT DA ETA EZ
LUKE NEGOZIO BAT
IZAN BEHAR"**

Elkar zaindu nahi dute komunitate barruan, baina ekarpena egin nahi diote herriari ere. "Irekiak izan nahi dugu. Herrian txertaturik harreman estua izan nahi dugu zuekin. Txirikordatik hainbat ekintza jaioko dira. Uste baino lehen, gure berri izango duzue, egon adi. Laster, eraikinaren beheko aretoaren atea zabalduko ditugu herritar guztiontzat. Espazio bat gehiago izango duzue gizarte nahiz kultur ekimenak partekatzeko", iragarri zuten.

"Etxebizitza eskubidea da, ez negoziua"

Txirikordako bizilagunek eskerrak helarazi nahi izan zizkieten 2019an garatzen hasitako egitasmoan bidelagun izan direnei. "Udalaren gidaritzapean, 30 bat herritarrek prozesuan parte hartu zuten eta gaur gauzatuta ikusten dugu bertan landutakoa. Pozik eta oso eskerturik gaude hau guztia posible egin duzuen guztiei", goraiatu nahi izan zuten. Zorte handia izan zutela adierazi zuten Txirikordako bizilagun izateagatik, "baina ezin ahaztu Txirikordako atarian geratu zaretanok, eutsi itxaropenari!", adierazi zieten.

Aurkezpen ekitaldian zehar, oinarrizko behar bat aldarrikatu zuten. "Oinarrizko eskubidea da guzti-guztiok etxebizitza duin bat izatea, eskubide hori aldarrikatu nahi dugu ozenki hemendik. Etxebizitza izatea horixe baita, eskubide bat, eta ez luke negoziua izan behar", adierazi zuten Txirikorda atarian bildutakoen txalo artean.

Etxebizitza duina guztiontzat aldarrikatzeaz gain, "zaintza sistema goitik behera aldatu" behar dela galdegin zuten. "Gizarte politikak indartu behar dira garaian garaiko beharretara, egokitutako etxebizitzak bermatzeko, giza kolektibo guztiei erreparatu eta bereziki egoera zaurgarrian dauden horiei".

"Bizitza oparoa izan dezazula!"

Belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioari egindako herri-inaugurazioan ongi etorria ematen lehena, egitasmoaren sustatzaile Usurbilgo Udala izan zen. "Ongi etorri Txirikorda eta bizitza oparoa izan dezazula!", adierazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, Txirikordako lehen pisuko balkoitik. Izan ere, berezi askoa izan zen hasieratik aipatu eraikinaren irekiera ekitaldi ofiziala, alkateak zioen moduan. "Mugarri garrantzitsua da Usurbilgo Udalarentzat eta esango nuke mugarri garrantzitsua dela ere Usurbilgo herriarentzat". Herri proiektu aitzindaria abiarazi zutela jakinarazi zien bertaraturikoei. "Aitzindaria Usurbilen eta aitzindaria Euskal Herrian".


Eskertza bidelaguneri

Esker hitzak izan zituen egitasmoa hastapenetik gaur arte ahalbideratu dutenentzat. Hasteko, bizilagunentzat, "norberetik asko jartzen ari delako Txirikorda benetan alternatiba baliagarri eta arrakastatsu bat izateko. Gakoa da jarrera hori eta balio dezala Txirikorda bezalako proiektu hauek bai Usurbilen etorkizunean eta bai Euskal Herrian zabaltzeko".

2015-19 legealdiko udal gobernu taldea ere eskertu zuen, "proiektu hau proposatzeko izandako ausardia eta erabakimenagatik. Lehen hazia eurek erein zuten eta horri esker loratu da proiektu eder hau".

2019an zehar hain zuzen, Txirikordan elkarbizitzen jarri diren bi kolektiboetako herrikideekin batera udal gobernu talde hark sustaturiko parte hartze prozesuak egitasmoaren eduki nagusiak definitu zituzten. "Prozesu hura giltzarria izan zen", oroitu zuen alkateak.

Egiteko hura Hiritik At kooperatibak dinamizatu zuen.



Txirikordako bizilagunek inaugurazioko bisitariei eginiako harrera.

"Haiei ere eskerrak eman nahi dizkiet proiektu honetan hasiera hasieratik sinestu zutelako, bultzatu eta animatu gintuztelako aurrera egitera, proiektu hau hezuramaitzen eta edukiak josten eta lantzen lagundu zigutelako. Prozesu hartan ere euren alea jarri zuten herritarrei ere eskerrak eman nahi dizkiet. Izan ere, orduan definitutako ia eduki guztiak barnebiltzen dituelako egun martxan daukagun proiektuak, izan alderdi sozialari lotutakoak edo izan hirigintzari lotutakoak".

Prozesu hartan oinarrিতa landu zuen LZB arkitektura kooperatibak Txirikordaren proiektu arkitektonikoa. "Balioan jarri nahi dut, hirigintza feministaren adibide eredu-garria delako Txirikordako eraikina. Proiektu honetatik sustatu nahi diren helburuak, balioak eta eredu komunitario

**ALKATEA:
"ONGI ETORRI
TXIRIKORDA
ETA BIZITZA
OPAROA IZAN
DEZAZULA!"**

eta belaunaldiartekoa lortzeko berebiziko garrantzia duelako eraikinaren diseinuak eta uste dut bete-betean asmatu zuela eta haiei ere eskerrak". Gerora, aurreko legealdiko udal gobernu taldea eskertu nahi izan zuen, "2019ko parte hartze prozesutik eratorritako txosten teoriko hura, praktikara eramateko izandako ausardiagatik". Bidea gorabeheratsua izan da, "baina zailtasunak zailtasun, proiektu honen gauzapenean asko ikasi eta gozatu dugu".

Bi behar sozialen txirikordatzea

Izan ere, egitasmo honek egini niko ibilbidearen errepaso egin zuen. Gogoan izan, Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa Ugartondoko auzune berrian dago kokatua. Garapen urbanistiko horretatik eratorrita eskuratu

**UDALA:
"SEGURU GAUDE
BIZIKIDETZA
ABERASGARRIA
IZANGO DELA BI
KOLEKTIBOENTZAT"**

ahal izan zuen ekipamendu hau Udalak. Haren erabilera zehazteko behar sozialei buruzko diagnosi bat egin zuten. "Ikusi zen bazeudela bi behar sozial" eta bertatik erantzuteko aukera egon zitekeela; gazteen emantzipazio eta adinekoek irisgarritasun arazorik gabeko bizitoki egoki bat izateko nahiz haien bakardade ez hautatuari aurre egiteko beharrak txirikordatu zitezkeela. Izena bera ere hortik datorkio proiektu honi. "Horrela bada, erabaki zen ekipamendu publiko hau emantzipatu nahi zuten gazteei eta konpainian bizi nahiko luke ten adinekoentzat, bientzat izan zitezkeela".

Zaintza ekosistema berriaren sarean

Elkar zaintza sustatu nahi duen proiektu hau hain zuzen, Usurbilen eraikitzen ari diren zaintza ekosistema eredu berri-tzailearen baitan kokatua dago, "persona ardatz izango duen arreta ereduaren" barruan, "non zaintza beharrean diren herrikideentzat, komunitateak eskaini ditzakeen aukerak artikulatu nahi dituen. Beraz, Txirikorda bada ere elkar zaintzarako proiektu bat eta zaintzari ere ikuspegi prebentibotik heldu nahi dion egitasmoa".

Egun, Txirikordan bizi den komunitatea eraikitzeko berebiziko garrantzia izan du Usurbilgo Udalarentzat, bizilagunek etxeak esleitu zitzaizkienetik iaz, urte honetan Hiritik At kooperatibakoekin batera elkarrekin jorratu duten prozesuak, "bai elkar ezagutzeko, aliantzak josteko, komunitate izaera hori lantzeko, Txirikordaren edukiak ere barneratzeko eta Txirikordarekiko proiektuarekiko babes hori eta konpromiso hori lantzeko". Seguritasun erabatekoa agertu zuen alkateak, "bi kolektibo horiek bateratzeak baduela indar gehigarri bat, eta seguru gaude bizikidetza aberasgarria izango dela bi kolektiboentzat".



Emantzipazio zailtasunak dituzten gazteak eta bizitoki egoki baten premian diren helduak elkarbiziko dira Txirikordan.

Urtebeteko elkarbizitza prozesuaren emaitza

Urtebeteko elkar ezagutza eta prestaketa lanen bidea osatu dute Txirikordako bizilagunek. Iazko maiatzean etxebizitzak esleitu ostean hasi ziren biltzen, komunitatearen kontzeptua nork bere ikuspegitik definitzen eta azaleratzen zihoana denen artean josten.

"Prozesua orohar oso naturala izan da", nabarmendu zuen Olatz Askorretak, iragan astean egindako prentsaurrekoan. Jarraikortasun bat izan duela gaineratu zuen. Eraikitze lanak atzeratzea lagungarri suertatu zaiela adierazi zuen. Izan ere, hartara, "horrek lagundu du komunitate are sendoagoa izatea". Ibilbide honetan, azpimarratu zuenez, "belaunaldiarteko ikuspuntuak lotzea izan da erronka nagusia". Barne-araudia eta komunitatea osatzeko "enpatia lanketa handi bat" bideratu dute denek, azaldu zuten; "beraiek gure tokian jartzea eta gu beraie-nean", Olatzen esanetan. Bartzuen eta besteen erritmoak bateratzeko ahalegina egin dute. Behar ezberdinak josteko lan hau lagungarritzat jo zuen. Bide horretan, Zabalduz

kooperatibako kideak izan dituzte bidelagun. "Asko lagundu digute. Prozesuan funtsezkoak izan dira", Askorretaren esanetan.

"Zerbait gehiago sortu da hemen"

Beste perspektiba bat hartzen, ahalduntzen lagungarria izan zaie prozesu hau, baita jabetze ariketa bat ere. "Ikusi dugu proiektu hau ez dela edonori zuzendurikoa". Izan ere, belaunaldiarteko elkarbizitza komunitarioa sustatzen du egitasmo honek eta hori aintzakotzat hartu beharrekoa da noski. "Oso polita da etxetik atera eta segituan bizilagunekin topatzea. Eguna alaitzen digu. Jada ez gara ezagunak bakarrik, zerbait gehiago sortu da hemen". Pozik egindako bidearekin,

ibilbide horretan ikasitakoa praktikan jartzen hasiak direla berri eman dute. Asanblada bat osatua dute bizilagunek. Sarritan egiten dituzte bilerak. Une honetan, egungo beharrei aurre egiteko hiru talde osatuak dituzte Leire Arregik berri eman zue-nez. Egunotan, hedabideetan bolo-bolo dabil Txirikordaren proiektua. Elkarriketak lotzen ari da taldeetako bat. Beste bat, Udalarekin hartuemanen-

"OSO POLITA DA ETXETIK ATERA ETA SEGITUAN BIZILAGUNEKIN TOPATZEA. EGUNA ALAITZEN DIGU"

tan da. Hirugarrena, iragan asteko inaugurazioa prestatzen aritu da. "Edozer bada, asanbladan komunikatzen da, hor erabakitzen dugu dena", Arregik nabarmendu zuenez.

Momentuz, hiru dira osatu dituzten taldeak. Beharrak aldatzen joango direla ziur dira eta horiei aurre egiteko egokitzen joan daitezke taldeok. Esaterako, agerraldia egin zuten eremua, "soziedade izango da. Hau kudeatzeak beste lan bat eskatzen du. Bakoitzak zer egingo duen aztertzen ari gara". Horregatik, "pixkanaka behar horiei erantzun" nahi diete.

"Komunitatean bizi gara"

Aipatu asanblada eta taldeez gain, barne-araudi bat onartua du Udalak. Bertan, Txirikordako bizilagunen eskubide eta betebeharrak zehazten dira. "Araudi bat dugu garbiketarako. Egutegia finkatua dugu bakoitzari noiz lan egitea dago-kigun zehazten duena", azaldu zuen Ofelia Moraima Rodriguez Peñalverrek. Iragarri zuenez, gainera, auzokonpostatze egitasmoan parte hartu asmo dute. Gastuei kolektiboki aurre egingo diete, "komunitatean bizi baikara". Horrez gain, sukaldarako arduradunak dituzte. Hilero hitzartuak dituzten zortzi orduko lan komunitarioak bideratzeko lanketan dira. Ordu komunitarioekin eta diru-sarreraren arabera 90-300 euro arteko alokairuarekin ordainduko dute denek Txirikordako egonaldia. 16 dira eraikitako etxebizitzak, 16 bizilagun bizi dira; 18-30 urte arteko 12 gazte hamar etxeetan, 65 urtetik gorako lau heldu beste hiru etxebizitzetan. Hutsik geratu diren adinekoen gainerako hiru pisuetarako hilabeteko izen-ematea irekiko du Udalak. 2,4 milioi euroko inbertsioa izan du egitasmoak (640.000 euroko Eusko Jaur-laritzaren dirulaguntza).



Etxebizitza negoziua ez, eskubidea dela aldarrikatu zuten irekiera ekitaldian.



Udalak ongi etorria eman zion belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioari.



Bizilagunak Txirikordaren inauguraziora joandakoei ongi etorria ematen.



Jendetsua izan zen, maiatzaren 10eko Txirikordaren herri-inaugurazioa.



Ugartondo estreinakoz girotu zuen Txirikordaren herri-inaugurazioak.



Txirikordak ikusmina eragin zuen bisita gidatuetan.



Fanfarrikant herriko taldearen plazaratzea, Txirikordaren herri-inaugurazioran.



Kantu giro ederrean amaitu zuten Txirikordaren herri-inaugurazioa.



Sudokua eSKURA

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak ESKURA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (E, S, K, U, R eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Pareak

HAMAHIRU!




Hauek bai zortea!


Seina beso, aizue! Eta den-dena eskura, ezta? Aurki itzazu bi Shiva hauen artean dauden 13 aldeak.

Handienetik txikienera

Ordenatu eskuok handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.



Zomorroak Labirintuan



Hiru xomorrotxo hauetatik bat labirintotik aterako da, beste bat etxera iritsiko da eta hirugarrena harrapatuta geldituko da labirintuan. Ea identifikatzen dituzun.



Hatz-aztarnak gizaki bakoitzaren ezaugarri behinenak omen dira: nork bereak ditu eta ez omen daude bi berdin. Baina hemen hatz-aztarna guztiak bi aldiz ageri dira, bat izan ezik. Zein da?

Zertarako erabiltzen dituzu eskuko hatzak? Gitarra jotzeko? Muki lehorrak ateratzeko? Arkatzei eusteko? Bada, batzuek ipuintxoak asmatzeko ere baliatzen dituzte. Hatz bakoitzean pertsonaia bana marraztu, eta istorioak kontatzen hasten dira. Hemen azpian esku baten ertza dago. Hiru pertsonaia ditu: Txirrita bertsolaria, Altzoko Handia eta Margarita Nafarroako azken-aurreko erregina. Bostekoa osatzeko beste bi pertsonaia falta dira. Egin itzazu zure gustukoak.

Pertsonaiez gainera, marraztu eskumuturreko bat, eraztun polit bat eta ia esku osoa beteko duen tatuaje bat. Ondo margotu.

KONTA!



Bakoitzari berea

Ezagutzen al dituzu eskuko hatzen izenak? Hala bada, lotu hatz bakoitzari bere izena. Batzuek izen bat baino gehiago dute.



TXIKIA

ERPURUA

NAGIA


ERAKUSLEA

BIZKORRA

LUZEA

LODIA

HANDIA



ATEAK ZABALIK DITUZU USURBILEN JARDUERA BERRI BATI HASIERA EMATEKO!

zabalik.usurbil.eus

DIRULAGUNTZAK

ALOKAIRURAKO
DIRULAGUNTZA
USURBILEN HUTSIK
DAUDEN LOKALETAN

ZURE PROIEKTUAREN
HASIERAKO GASTUEI
AURRE EGITEKO
DIRULAGUNTZA

Eskatzeko azken eguna: maiatzak 31

Informazio gehiago

943 37 19 51 / 688 884 314 /

747 441 745

enplegu@usurbil.eus

ekintzailletza@beterriburuntza.eus

usurbil
zabalik **Z**



Usurbilgo Udala



KABIENE

Usurbilgo elkarlan gunea



BETERRI
BURUNTZA

HASIZ HAZI diru laguntza
ekintzaile eta autonomoentzat:

URTEBETEKO EGONALDIA
KABIENEN, DOAN

Eskaerak aurkezteko bi epe:

1.epea: Maiatzak 31 arte

2.epea: Irailak 30 arte

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: Usurbilgo Udala 943 37 19 51 enplegu@usurbil.eus

Kabiene elkarlan gunea 943 55 96 75 kabiene@kabiene.com

Beterri-Buruntza autoenplegu zerbitzua 688 884 314 eta 747 441 745 ekintzailletza@beterriburuntza.eus



Ane Lindane eta Raquel Torres "despotorre" bizian.

"Despotorrea" Emakumeon Etxean

"Despotorre" umorezko ikuskizuna eskaini zuten larunbatean Ane Lindane eta Raquel Torres bakarrizketalariak Emakumeon Etxean. Feminismotik sortutako umorezko ikuskizunean barre lasai egin zuten hurbildutako herritarrek, gizarte kritika sakonarekin bat eginda.



Joseba Tapia eta Mikel Alkorta trikitilariak erromeria giroa sortzen.

Joseba Tapia eta Mikel Alkorta, zuzenean

Aitzaga Kultur Elkartearen 30. urtemugako ekitaldi nagusia bi aste barru izango bada ere, larunbat gauean kontzertua eskaini zuten Joseba Tapiak eta Mikel Alkortak elkartearen atarian. Trikitixa gustuko dutenek aukera ederra izan zuten bi trikitilari bikain ikusi eta euren doinuekin dantzan aritzeko.



Hurrengo saioa maiatzaren 24an izango da, Potxoenean.

"Vachoca" denontzat

Etorkinekin maiatzaren 6an eginiko saioaren ondotik, herritar orori zuzenduriko tailer artistikoaren hurrengo saioa hilaren 24an izango da, 17:30-19:00 artean, Potxoenean. Izen-ematea: ganbara.sormentailerra@gmail.com helbidean. Etxea gaitzat hartuko dute eta 15 lagunentzako tokia egongo da gehienez.



Itzulia Women herritik pasatzean, pelotoiko txirrindulariak iruditan.

Itzulia Women herritik pasa da

Igande eguerdian, Itzulia Womeneko emakume txirrindulariek Usurbil zeharkatu zuten Oriotik Donostiarako bidean. 358,9 kilometroko ibilbidea egin eta azken etapan pasatu ziren herritik ehunka partehartzaile. Punta-puntako txirrindulariez gozatzeko aukera paregabea izan zen.

USURBIL DÖNER KEBAB

843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

Borda Berri Kalea, 5

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

Itzuli

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA

ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

600 024 825



Ioritz Boubeta eta Aitor Vazquez Usurbil FTko jubenil mutilen entrenatzaileak.

"Gure jubenilek lortu dute mailaz igotzea"

IORITZ BOUBETA ETA AITOR VAZQUEZ ENTRENATZAILEAK

Usurbil FT taldeko jubenilek mailaz igotzea lortu dute zortzi urteren ondoren. Ohorezko Mailan arituko dira datorren urtean. NOAUA! taldeko bi entrenatzaileekin izan da.

Joan zen asteburuko partida irabazi eta mailaz igotzea lortu zenuten. Zein mailatik zein mailatarako jauzia izan da?

Ioritz Boubeta: Preferente mailan aritu gara aurten eta ohorezko mailara egin dugu jauzi datorren urterako. Zortzi urte ziren klubak ez zuela mailaz igotzea lortzen jubenil mutilen kasuan. Azken igoera ni jokalarik nintzela lortu genuen, urtebete ohorezko mailan egin eta jaitsi egin ginen. Azkenean, urte dezente pasatu ondoren, gure jubenilek lortu dute mailaz igotzea berri ere.

Aitor Vazquez: Duela bi urte maila berri bat sortu zuten talde asko daudelako maila hauetan futboleko. Joan zen urtean preferente maila berri horretara igotzea lortu genuen, eta aurten, horrenbeste bo-

rrokatutako ohorezko maila horretara. Beraz, maila berriaren sorrerarekin eskailera-maila bat igo beharrean, bi igo behar izan ditugu helburu mailara iristeko. Real Union B, Turin B... Gipuzkoan izen ona duten klubak bigarren taldeen aurka aritu gara aurten.

Datorren urtean zer suposatuko dio taldeari igoera horrek? Zein izango dira ezberdintasun nagusiak?

"DATORREN URTEAN LEHENENGO TALDEEN AURKA ARITZEA TOKATUKO ZAIGU"

A.V: Datorren urtean klub askoren lehenengo taldeen aurka aritzea tokatuko zaigu. Donostiako talde indartsuak izango ditugu aurrean. Mailari eustea izango da gure helburu nagusia, baina uste dugu oso belaunaldi ona tokatu zaigula eta urte polita egingo dugula uste dugu, lasai ibiltzeko moduan. Ez dugu aurreikusten asko sufritzerik, baina hori ikusi egin beharko dugu.

"KLUBEAN GEROZ ETA JENDE GEHIAGO ARI DA SARTZEN ETA HORI BEREZIKI NABARMENA DA"

I.B: Bi talde igotzen dira mailaz urtero eta txartel hori lortu badugu ere, lehen postua borrokatu egin beharko dugu Trintxerperen aurka. Mailako talderik onena zein den erabakitzeko egiten den partidua izaten da, eta gure kasuan Trintxerpe izango dugu arerio.

Aurreikuspeni lotuta, jokalariek jarraitzeko asmoa dute edo asko alda daiteke taldeko panorama?

A.V: 18-20 jokalarik izan ditugu aurten. Batzuk bigarren taldeetik hartu ditugu partidu batzuk jolasteko. Jubeniletan bi talde dauzkagu bi maila ezberdinetan jokatzeko dutenak. Mailaren arabera banaketa egiten dugu jokalariekin bigarren taldean daudenek minutuak izan ditzaten jokatzeko eta lehen taldea ere indartsua izan dadin. Datorren urterako ez dugu aldaketa handirik espero nahiko belaunaldi indartsua datorrelako eta jokalariek jarraitzeko asmoa erakutsi digute.

I.B: Komeni da lehen taldea mailan behar bezala egokituta izatea kategorian ez galtzeko. Bi talde maila berean izateak arazoak sortzen ditu jokalariek mugitzeko ez duelako aukerarik ematen eta partiduren batean baja asko direnean,

askoz ere zailagoa da arazo horri aurre egiten.

Nola dago kluba osasunez?

I.B: Klubean geroz eta jende gehiago ari da sartzen eta hori nabari da. Talde asko izateak alde onak ditu, baina entrenatzerako orduan zelaia banatu egin behar da talde batek baino gehiagok aldi berean entrena dezaten. Gauza onak eta txarrak ditu talde asko izateak.

A.V: Kategori bakoitzeko bi talde daude eta infantiletan hiru. Nesketan ere talde dezente daude: seniorrak, kade-teak bi talde eta infantilak bi. Nesken futboleko geroz eta talde gehiago ari dira sortzen eta jokalaririk asko daude.

Zuek entrenatzaile lanetan urte asko daramatzazue?

I.B: Nik bizitza osoa daramat klubean jokatzen alebinetatik hasita. Oraindik ere, seniorretan jokatzen jarraitzen dut. Entrenatzaile lanetan urte dezente daramat. Alebinak entrenatzen hasi nintzen lehen urtean, eta pentsa, nik lehen urte hartan entrenatu nituen umeak datorren urtean nirekin seniorretan jokatzen hasiko dira. Katgoria guztiak entrenatu ditudala esango nuke, baina urtebetez ez nuen talderik entrenatu, eta justu urte hartan sartu zen Aitor entrenatzaile lanetan. Titulua ateratzeko urtebetez entrenatzaile lanak utzi egin nituen eta ondoren, azken bi urte hauek egiteko itzuli nintzen eta ordutik Aitorrekin nabil lanean.

A.V: Ni txikitatik Añorgan ibili naiz eta entrenatzen ere bertan hasi nintzen 17 bat urterekin edo. Lesio bat izan nuen eta Usurbilera etorri nintzen errekuperatu nintzean. Entzuna neukan Usurbilgo kluba ondo zegoela eta hona etortzeko erabakia hartu nuen. Iritsi bezain pronto oso gustura sentitu nintzen eta oso ondo hartu ninduten. Hala ere, gerora Añorgara



Maila igoera lortu duen Usurbil FT taldeko jubenil taldea.

itzuli nintzen, eta berriro Usurbilera etorri nintzen duela urte batzuk. Joan etorrian ibili naiz bi klubetan artean urte batzuetan. Jokatzera itzuli nintzen azken aldian, entrenatzaile izatea ere eskaini zidaten eta jubentekin hasi nintzen lesio baten ondorioz jokatzeari utzi behar izan nionean. Bost aldiz apurtu dut belauna eta jada ezin dut jokatu jarraitu, baina entrenatzaile lanetan oso gustura nabil. Ioritzek eta biok aspalditik ezagutzen dugu elkar. Elkarrekin jokatu dugu, elkarren aurka, guk entrenatutako taldeak elkarren aurka aritu dira eta talde bera entrenatu dugu. Etapa guztiak pasatu ditugu.

Entrenatzaile lanak geroz eta profesionalizatuago daude?

A.V: Lehen ahal zuenak egiten zuen eta ez zen ia ezer eskatzen, baina orain gauzak asko ari

dira aldatzen. Titulazioa eskatzen hasi dira eta maila zein katgoria bakoitzerako titulu konkretuak behar dira.

I.B: Nik urte batean entrenatzeari utzi nion titulua ateratzeko, eta hori egin behar izaten zen lehen. Orain, ordea, ikasturte osorako talde bateko entrenatzaile izan behar duzu titulua atera ahal izateko. Entrenatzaileak gehiago ari dira formatzen orain. Lehen, uda batean kurso txiki bat eginda lor zitekeen titulua, baina orain askoz gehiago zabaldu da hori. Klaseak izaten dira, lanak eta praktikak. Lau maila izaten dira D, C, B, A eta Pro. B maila daukagu guk. Gazteak entrenatzen ditugu eta horrez gain, hezitzaile lana ere egiten dugu, beraz, prestaketa behar da.

Usurbil FTK badu izen ona Gipuzkoan eta Euskadin eskubaloian gertatzen den bezala?

"GU HARRO GAUDE EGINDAKOAZ, ETA BATEZ ERE, HERRIKO JENDEAREKIN LORTU DUGULAKO"

I.B: Niretzat Usurbil FT dena da. Betidanik bertan jokatu dut, beraz, niretzat onena da. Herri-talde bat gara eta futbol formakuntza eskaintzen duena. Kanpotik etorri izan den jendea leku bila etortzen da, jokatzeko aukera izatera, klub handietan lekurik ez duten horiek. Guk bi edo hiru jokalaririk ditugu herrikoak ez direnak, baina gehienek urteak daramatzate gurean. Batzuek talde handietan ez zituzten minutuak lortu edo bere taldearen maila ez zen oso ona eta zerbait gehiagoren bila etorri dira.

A.V: Gipuzkoan ez dauka horrenbesteko izenik, baina eskualdean eta inguruan badu bere izena. Azken urteetan klubak lortu du maila ona lortzea eta igoera batzuk lortu ditugu eta talde batzuk borrokan ari dira igoera lortzeko. Horrek etorkizunera begira lortzen du gazteak klubean geratzea. Oso polita da igoerak lortzea, baina are gehiago herriarrez osatutako taldea bada. Antiguoko edo Añorga, adibidez, talde onak dira, baina fitxaketekin funtzionatzen dute eta bertakorik ia ez dute. Gu harro gaude egindakoaz, eta batez ere, herriko jendearekin lortu dugulako.



Usurbildar eskubaloia jokalaririk gazteak bi astetik behin Euskadiko selekzioarekin entrenatzen du.

"Datorren ikasturtean ere ikasketek izango dute lehentasun nagusia"

PERU IRAETA ESKUBALOI JOKALARIA

Eskubaloian aritzen da Peru Iraeta beste usurbildar asko bezala. Usurbil KE taldeko harrobiko jokalaria bada ere, Pulpo EK taldean dihardu aurten eta Euskadiko Selektzioarekin ere badabil. NOAUA!rekin izan da kirolaria bere esperientzia partekatzeko.

Zumaiako Pulpon jokatzeko duzu eta horretaz gain, Euskal Selektzioari kide ere bazara. Astero, zenbatetan entrenatzen duzu?

Aurten Pulpoarekin nabilela kontuan hartuta, Zumaiara joateak denbora gehiago eskatzen dit entrenamendu bakoitzean. Hiru entrenamendu izaten ditugu astean eta partidua asteburuan. Gainera, bi astetik behin Euskadiko selekzioaren entrenamendua ere izaten dut. Azken kasu horretan, Zumaian izan daiteke edo Bizkaian, adibidez. Bidaiatze hutsak ere denbora eskatzen dit eta entrenamenduak ere ez dira bi minutuan egiten. Esango nuke, batez

beste, 20 ordu edo gehixeago eskaintzen dizkiodala eskubaloia astean. Urrutira joatea tokatzean gurasok eraman nauten normalean, eta ezin badute, selekzioari lagunekin hitz egin eta hala moldatzen gara. Gertu bada, trenean ere ibiltzen naiz hala behar denean. Zumaiarekin eta zarautzarekin mugitzen naiz, batez ere.

Jubenil mailan ere asko zaindu behar izaten duzue?

Maila honetan aritzeko ez da dieta berezirik jarraitu behar, ez halakorik. Hala ere, parrandaren kasuan, entrenamendu eta partiduen aurreko egunean

parrandarik ez egiten saiatzen naiz. Konpromisoa eskatzen du eskubaloia. Behin maila profesionalago batean, agian, posibleago da muga batzuk izatea, baina ez gure kasuan.

Beste kirol jarduerak batzuetan ere arituko zinen txikitzen. Noiz

"JUBENIL MAILAKO AZKEN URTEA JOKATU NAHI NUEN ETA HORREGATIK ETORRI NINTZEN ZUMAIARA"

hasi zinen eskubaloia serio hartzen?

Eskubaloia probatu dudana azken kirola izan da. Lehen kirola igeriketa izan nuen. Urte dezentean eman nituen igerian, sei bat edo. Gerora, futbola eta pilotan ere ibili nintzen DBH arte. Behin DBHra iritsita, aukeraketa egin beharra neukan. Eskola kirolean eskubaloia probatu nuen eta asko gustatu zitzaidanez, kirol horrekin jarraitzea erabaki nuen. Usurbilgo taldea osatu ahal izateko jokalaririk kopuru minimo bat behar da, baina gu aurten hiru baino ez ginen. Seniorrekin jokatzeko aukera eman zidaten klubean, baina jubencil mailako azken urtea jokatu nahi nuen nik. Oso berezia izaten den maila da. Beraz, ibilbidea Pulpon, Zumaian, jarraitzea erabaki nuen. Duela bi urte ere egoera berean egon ginen Usurbilen eta talde bakarra osatu genuen Pulpo eta Usurbilgo jokalariekin. Usurbilgo taldea ordezkatu genuen orduan. Aurten, berriz, gu hain gutxi izanda, hara joatea erabaki dut jada ezagutzen nituelako jokalaririk.

Euskadiko Selektzioarekin zabil-tza. Lehiakortasun handia dago taldekideen artean?

Normalean ez dugu adierazten lehiakortasun hori denekin. Joan zen urtean jubencil mailako lehen urtekoa nintzen eta beraz, bazeuden ni baino zaharragoak. Horrekin sentitzen nuen hainbeste aukera ez nuela, baina nik neure onena ematea nuen helburu. Aurten, berriz, gazteagoak daukagu taldean eta baita adinekoak ere. Oso gustura sentitzen naiz egoera honetan, asko lehenagotik ere ezagutzen nituelako partiduetatik eta inguruko herrietako asko daude. Selektzioan Bizkaiko jende gutxi daukagu aurten, hiru jokalaririk baino ez. Gainontzeak hemen ingurukoak gara: Zarautz, Zumaia, Donostia, Irun...

→ Nolakoa da beste taldeetako harremana?

Klubaren arteko ligan lehiakortasun hori nabari da, baina pistara baino ez da mugatzen. Oso harreman pertsonal onak dauzkagu. Selektzioaren kasuan, gainontzekoekin ez daukagu horrenbeste harremanik eta horrek erraztu egiten du lehiakortasun hori sortzea.

Egun Pulpo EK taldearekin zabilta. Erraza izan al zen egokitzea?

Eskola kirolean Usurbilen hasi nintzen LH5ean. Kadete lehen urtera arte jarraitu nuen klubean eta orduan, lehen aipatutako jokalariek faltaren aurrean egon ginen. Beraz, Pulporekin nahasian jokatu genuen Usurbil KE izenpean, eta orain, Pulpoko jokalariek bilakatu naiz. Datorren urtean, lehen nagusia ikasketak ditut. Unibertsitatean hasiko naiz eta aldaketa horiekin moldatu egin beharko dut. Garaia iristean ikusiko dut Pulpon jarraitu, Usurbil KEko seniorrekin aritu edo zer egin.

Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileak?

Entrenatzaile guztiek eman didate zerbaite. Asko ikasi dut denengandik eta aspektu askotara zabal ditzakedan ikasketak eman dizkidate. Usurbilen kadeteetatik aurrera sentitu nuen eskubaloiarekiko atxikimendu hori, batez ere. Garai hartan oso entrenatzaile ona izan nuen eta esperientzia ederra lortu nuen. Pistatik kanpo ere, harreman estua egitea lortu genuen.

Eskubaloian, Usurbilek tradizio handia du. Kabilia garrantzitsua izan da. Hemendik kanpo, Usurbil KE eskubaloi taldeak bere prestigioa du, ezta?

Usurbilgo kluba nahiko txikia da, baina gainontzeko klubek errespetu handiz tratatzen dutela esango nuke. Gogoan dut Euskadiko entrenatzaileak behin esan zidala Usurbilgo



"Kadeteetatik aurrera sentitu nuen eskubaloiarekiko atxikimendu hori".

taldeak zituela gustuko inoiz errenditzen ez den kluba delako. Hori oso gogoan dut. Non jolasten dudana galdetzen didatenean, Pulpo erantzuten dut. Nongoa naizen galdetzean, berriz, Usurbil. Aurten, zortzarrez, ezin izan dugu talderik atera eta hori ere kontatzen dut, normalean.

Eskubaloitik bizi al daiteke bat?

Zure kasuan, zer ari zara ikasten?

Unibertsitatean hasiko naiz datorren urtean eta klaseak goizez izaten dituzte talde batzuek eta arratsaldez besteek. Argi daukadana da goizeko taldean sartuko naizela. Gisa horretara, arratsaldeak esku-

baloari eskainiko dizkiot. Seniorretan Euskadiko Selektzioa desagertu egiten da, eta partidu bereziren bat edo besterako deialdia egiten dute, baina talde dinamikarik ez da izaten. Beraz, nire taldera mugatuko nuke eskubaloiko ibilbidea. Klub handiren baten fitxaketa oso gustura hartuko nuke, ez bakarrik klub handi batean jokatzeko dudala esateko, baizik eta bertan jokatzeko duten batzuk ezagutzen ditudalako eta oso hitz politik dauzkadalako taldearen funtzionamenduarentzat.

Eta etorkizunean, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua?

Eskubaloia uzten dudanean, entrenatzaile izatea gustatuko litzaidake. Ez dakit nolako entrenatzailea izango nintzatekeen, baina umeekin lan hori egitea eta balio horiek transmititzea ederra iruditzen zait. Gerora, maila altuagoak ere probatzea gustatuko litzaidake.



Peru Iraeta.

Laburrean

Zenbaki bat:

11.

Kolore bat:

Gorria.

Miresten duzun kirolari bat edo entrenatzaile bat:

Aleix Gomez.

Zurea ez den kantxa bat edo jolasleku bat hauta ezazu:

Zarauzko kantxa.

Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:

Breaking Bad.

Liburu bat aholkatuko diguzu?

Ramon Saizarbitorriaren *Ehun metro* (Erein).

Zein da zure abestirik gogokoena?

Iritsi da eguna (Pirritx eta Porrotx).

Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?

Instagram.

Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.

Sutegi azpiko zonaldea.

Santixabelak ala Sargardo Eguna?

Santixabelak.

Oporretarako toki bat.

Lagunekin Ibizara joatea gustatuko litzaidake.



Mattin Aiestaranek Irulegiko eskuari buruzko hitzaldia eskainiko du maiatzaren 23an.

Aitzagaren 30. urtemugako ekimenak

Ekainaren 1eko jaialdiaren atarian, Aitzaga kultur elkarteak hainbat ekimen iragarri ditu hurrengo asteotarako:

Maiatzak 22-ekainak 1
'Aitzaga Kultur Elkarte 30 urtez hegaldean' erakusketa Sutegin. Ordutegia:

- Asteartetik larunbatera: 18:00-21:00.
- Larunbatetan: 11:00-14:00.

Maiatzak 23, osteguna
• 18:30 Irulegiko eskuari buruzko hitzaldia Sutegi auditorioan.
• Hizlaria: Mattin Aiestaran.

Kantu-jiraren ordu aldaketa

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak maiatzaren 25erako deitutako kantu-jiran ordu aldaketa iragarri dute. Ez da ohi bezala eguerdiko 12:00etan izango, arratsaldeko 19:00etan baizik. Mikel Laboa plazatik abiatuko da.

Matrikulazio garaia Zumarten

Maiatzaren 27an irekiko da matrikulazio epea eta 31ra arte egongo da zabalik. Eskaintza hauxe izango da: Musika txokoa, musika mintzaira, tronpetra, tronboia, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, kantu modernoa, abesbatza eta talde instrumentalak. Informazio gehiago zumarte.eus web orrian jaso daiteke.

Zinegoak Sutegin

Bilboko LGTBIQ+ Nazioarte-ko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia da Zinegoak. Bertan eskainiko diren film batzuk Usurbilen ikus ahal izango dira maiatzaren 17ko LGTBIQ+ Fobiaren Aurkako Nazioarte-ko Egunaren bezperan. Emakumeon Etxearen eta Udala-aren eskutik, maiatzaren 16an, 18:30ean Sutegin film hauek proiektatuko dituzte:

- *Mating* (Shuyao Chen) 15 min.
- *Dena asmatuta dago* (Jone Arriola) 14 min.
- *Analog Z love* (Alicia Awgar) 3 min.
- *Precoz* (Alejandro Aguirre) 15 min.
- *Flores de otro patio* (Jorge Cadena) 15 min.
- *La tentación du panda roux* (Haïga Jappain) 20 min.

Oharra: zenbait film euskaraz eta gaztelaniaz azpiztitulatuta egongo dira.

Informazio gehiago: zinegoak.com

Sudokua eskura

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak ESKURA hitza osatzeko erabiliz (E, S, K, U, R eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

A	U	E	R	S	K
S	R	K	U	A	E
K	E	S	A	U	R
R	A	U	K	E	S
U	S	R	E	K	A
E	K	A	S	R	U

Pareak

HA MAHIRU!

Hauk bai zortek! Seina beso, aizuel! Eta den-dena eskura, ezta? Aurki itzazu bi Shiva hauen artean dauden 13 aldeak.

Handienetik txikienera

Ordenatu eskuok handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.

Zomorroak Labirintoa

Hiru xomorrotxo haustatik bat labirintotik aterako da, beste bat etxera iritsiko da eta hirugarrena harropatuta geldituko da labirintoon. Ea identifikatzen dituzun.

Kontal!

Hatz-aztarnak gizaki bakoitzaren ezaugarri behinena omen dira: nor bereak ditu eta ez omen daude bi berdin. Baina hemen hatz-aztarna guztiak bi aldez ageri dira, bat izan ezik. Zein da?

Zertarako erabiltzen dituzu eskuo hatzak? Gitarra jotzeko? Muki lehorrak ateratzeko? Arkatzei eusteko? Bada, batzuek ipuintxoak asmatzeko ere baliatzen dituzte. Hatz bakoitzean pertsona bana marraztu, eta istorioak kontatzen hasten dira. Hemen azpian esku baten ertzat dago. Hiru pertsonaia ditu: Txirrita bertolaria, Altzoko Handia eta Margarita Nafarroako azken-aurrako erregina. Bostekoa osatzeko beste bi pertsonaia falta dira. Egin itzazu zure gustukoak.

Pertsonaiez gainera, marraztu eskumuturreko bat, eraztun polit bat eta ia esku osoa beteko duen tatuaje bat. Ondo margotu.

Bakoitzari berea

Ezagutzen al dituzte eskuo hatzen izenak? Hala bada, lotu hatz bakoitzari bere izena. Batzuek izen bat baino gehiago dute.

MERKATU TXIKIA

EREBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukaldea. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Usurbilgo Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude. Garrantzitsua esperientzia izatea. Deitu 670654272 edota bertatik pasa.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aulkia salgai, berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

Futboleko kadete nesken igoera



Mailaz igo dute Usurbil FT-ko kadete neskek. Ostegun honetan, maiatzaren 16an, 18:15ean

Haranen jokatu dute partidan ospatzekoak direla iragarri dute futbol klubetik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 16	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 18	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 19	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 20	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteartea, 21	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 22	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Osteguna, 23	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 24	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 25	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 26	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Eskubaloia

Maiatzak 18 larunbata

10:00 Infantil mutilak, triangularra:

-Usurbil KE A

-Infantilak Bera Bera Urdina

-Infantilak Bera Bera Urdina

-Amenabar A ZKE

-Usurbil KE A

-Amenabar A ZKE

12:30 Infantil neskek:

Usurbil KEA-Urola EK Goierri Bus

15:30 Senior mutilak:

Saizar Usurbil KE-Saieko Seyprel

17:30 Kadete neskek:

Usurbil KE-Egia Ordizi Taberna

Pilota partidak

Kadete mailako 2. jardunaldia:

Maiatzak 16, 18:30 Usurbil

Pagazpe 2 - Lapke

Azkoitia - Oiarpe

Maiatzak 17, 18:00 Aginaga

Pagazpe 1 - Behar zana

Futbol partidak

Maiatzak 16 osteguna, Haranen

• 18:15 Kadete neskek:

Usurbil FT-Añorga KKE B

Maiatzak 18 larunbata, Haranen

• 11:00 Kadete mutilak:

Usurbil FT-Aloña Mendi KE B

• 15:30 Erregionalak:

Usurbil FT B-Dunboa Eguzki CD

• 17:45 Preferente mutilak:

Usurbil FT-Roteta CD

Maiatzak 19, igandea, Haranetik kanpo

• 11:00 Jubenilak, Oiartzunen:

Oiartzun KE C-Usurbil FT B

• 16:00 Jubenil preferenteak,

Irungo Galen:

Real Union B-Usurbil FT

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 17

USURBIL Helduentzako tertulia filosofikoa

Gidaritza: Garazi Aizpurua.
Partaide-kopurua: 15 lagun.
Gonbidapenak: usurbilkultura.eus
plataforman eskuragarri.
18:30 Potxoenean.

USURBIL Organo kontzertua

Thomas Ospital organistak
eskainiko du kontzertua.
19:30 Salbatore elizan.

LARUNBATA 18

USURBIL Baratze zaintzako oinarritzako ikastaroa

09:30-13:30 Baratze Parkean.

ATXEGALDE Elkargunea, parte hartze prozesua

10:00-13:30 Udarregi ikastolako
Jangelan.

TXOKOALDE Sendabelarren identifikazioa eta bilketa

10:00 Txokoargin.

ZUBIETA Erraustegira martxa

11:00 Lasarte-Oriako Okendo
plazatik abiatuta.

TXOKOALDE Familientzako orientazio ibilbidea

16:30-18:00 Txokoaldeko Irisasi
baserriaren ondoan.

IGANDEA 19

USURBIL 41. Sagardo Eguna

Egun osoko jaja.



Dantzak, magia, apar-festa... Datozen egunetarako egitaraua oparoa izango da.

UdaberriFest Zubietan

Zubietako eskolako guraso
elkartearen eskutik, ikasturte
amaierara begirako azken
txanpa ospakizunerako tartean
bilakatuko dute UdaberriFest
zikloaren baitan iragarritako
ekitaldiokin:

Maiatzak 16, osteguna

- 17:00 Herri kirolak.

Maiatzak 22, asteazkena

- 18:00 Dantzak.
- 18:30 Txokolatada.

Maiatzak 23, osteguna

- 16:45 Kidam Magoa.
- 18:00 Apar-festa.

Maiatzak 24, ostirala

- 17:00 Serigrafia.
- Oharra: kamisetak edo serigrafiatu nahi dena eraman.
- 18:00 Tortilla lehiaketa.
- 21:00 "Zubieta talent".

Antolatzaileak: Zubietako
Herri Eskola, Zubietako Herri
Batzarra, Usurbilgo Udala.

Organo kontzertua Salbatore elizan

Donostia Musikak 'Johann Sebastian Bach zikloa'
antolatu du, musikari alemaniarraren sorkuntza lan
esanguratsuenak ezagutzera emateko. 'Organorako
Zikloak' ekimenaren baitako kontzertuetako bat osti-
ral honetan izango da, arratsaldeko 19:30ean, Salba-
tore elizan. Thomas Ospitalek eskainiko du.

Liburutegiko deialdiak

Honatz liburutegian
iragarri dituzten hu-
rringo hitzorduen
berri:

Maiatzak 29, asteazkena

- 18:30 'Memoria berriak' idazketa-tailerra Yolanda Arrietarekin. Izen-ematea aurrez liburutegian.

Ekainak 4, asteartea

- 19:00 Javier Cercasen 'El Movil' liburuari buruzko gaztelarazko solasaldia Ana Merinorekin. Aleak liburutegian eskuragarri.

Ekainak 7, ostirala

- 'Denok superheroi' sormen tailerra Zorione Mendezek eskutik, 8-10 urteko haurrentzat. Izena aurrez eman behar da liburutegian.

Buztinzuloren erakusketa

Keramika taldekoen
sortze lanak ikusteko
aukera izango duzue
egunotan Sutegin;
maiatzaren 21era arte.



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA



noaia



ZIRIMARA

2024-2025

IZEN EMATEA: online maiatzak 13-24

<https://labur.eus/zXkr>

*Jolas hezi programa, psikomotrizitatea, natur jarduerak,
saio bereziak, familia planak.*

Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolako
ES60 3008 0259 14 2084813324 kontu korrontean

Oharrak:

- Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiardo kiroldegiko bazkide izatea.
- Kiroldegiko abonamendurako hobariak eta eskolaz kanpoko kirolean aritzeko dirulaguntzak daude. Informazioa Udalaren webgunean edo kiroldegian.

ATE IREKIAK

USURBIL

• MAIATZAK 7 eta 14 (16:30–18:30) HH5/LH1/LH2

• MAIATZAK 9 eta 16 (16:30–18:30) LH 3/4

AGINAGA • MAIATZAK 6 eta 13 (16:30–18:00) LH 1-6

ZUBIETA • MAIATZAK 8 eta 15 (16:45–18:15) LH 1-6

ZIRIMARA FAMILIAN • MAIATZAK 14 eta 21 (16:30 - 17:30) (0-6 urte)

24/25 IKASTURTEKO ESKAINTZA

Urriak 1etik maiatzak 30era.

Ikasturte osoko kuota: 135 euro

Ordutegia:

KAXKOAN LH 1-2: Asteartetan 16:30 - 18:30

KAXKOAN LH 3 - 4: Ostegunetan 16:30 - 18:30

AGINAGAN LH 1-6: Asteleheneetan 16:30 - 18:00

ZUBIETAN LH1-6: Asteazkenetan 16:45 - 18:15

ZIRIMARA FAMILIAN (0-6 urte): Asteartetan 16:30 - 17:30



URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

Facebook Instagram @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com




ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

